

DENBORAZKO PERPAUSAK

Kontzeptua eta baliabideak	Adibideak	Erdarazko baliokideak
Aurrekotasuna Baino lehen(ago), aurretik, orduko, -t(z)erako, enerako	* Ezkondu baino lehenago pentsatu zer egiten den * Istorio horiek zu jaio baino lehenagokoak dira * Hasi aurretik ondo begiratu behar da * Mitxelenak hitz egin aurretiko kontuak dira horiek * Ni sartu orduko hitzaldia hasi zen * Zuhaitza moztu zutenerako hilda zegoen * Zu etortzerako gu alde eginda ginen	* Antes de * Anteriores * Para cuando
Aurrekotasun hurbila -t(z)erakoan, baino lehentxeago	* Atea irekitzerakoan ohartu zen giltza falta zitzaiola * Polizia azaldu baino lehentxeago ihes egin zuen	* Al ir a * Un poco antes que
Gerokotasuna Eta gero, ondoren, ondoan, ostean, -takoan, -(n)ez gero, -z gero	* Zu ezagutu ondoren ez dut besterik buruan * Edaten ibili ondoko goiza ez da erraza izaten * Lana galdu ostean kirola egiteari ekin zion * Ikasi eta gero ez zaizu ahaztuko * Hilda geroko kontuak ez zaizkit interesatzen * Zu ezagutuz gero pozik bizi naiz * Hura ikusitakoan bere gurasoez oroitu nintzen	* Despues de * Posteriores a * Cuando
Berehalakotasuna Bezain laster Agudo, arin, pronto, azkar... Eta berehala, behingoan, laster, orduko, -(n)eko	* Jakin bezain laster deituko dizut * Ikusi nuen bezain laster ohartu nintzen nor zen * Etxean sartu eta berehala jakin dut norbait zegoela * Hamazortzi urte bete zitueneko atera zuen karneta * Oheratu orduko loak hartu ninduen	* Tan pronto como * Nada mas
Aldiberekotasuna -nean,-n batean,-tean,-teaz batera, -az batera	* Ama datorrenean ikusiko duzu * Ikusi zintuenean korrika hasi zen * Telefonoz hitz egiteaz batera telebista ikusten zuen * Ikasiaz batera primeran ibiliko zara	* Cuando * A la vez
Iraupena -n bitartean, -n artean, -la(rik), -eino	* Ezer esaten ez duten bitartean, daudela bertan * Isilik dauden artean ez naiz kexatuko * Gu heldu bitartean ez egin ezer * Lanetik zetorrelarik hanka hautsi zuen * Lo zegoela hizketan ihardun zuen * Zu hemen zareino ez da tristurarik izango	* Mientras que (gerundio)
Maiztasuna -netan, -n bakoitzean, -n gehinetan, -n guztietan, -n aldiro,	* Zuzendariarekin egon naizenetan ez dit horrelakorik adierazi * Ikusten zaitudan bakoitzean haserretzen naiz * Etorri den gehinetan bakarrik izan da * Musika hau entzuten dudan guztietan zutaz oroitzen naiz * Etortzen den aldiro opariren bat dakar	* Las veces que * Cada vez que * La mayoría de las veces * Siempre que * Las pocas veces que

Hasiera- noiztik -netik, -netik aurrera, -nez geroztik, -netik hona	* Titulua atera duenetik ezin da berarekin egonan * Ikusi zaituen momentutik urduri jarri da * Ama hil zitzaionetik aurrera oso aldatu da * Etxea txukundu nuenez geroztik ez ditut gauzak aurkitzen	* Desde que
Amaiera, noiz arte -n arte(raino), arte, harik eta....arte	* Sendagileak ikusi arte ez zen lasaitu * Zu joaten zaren arteraino zurekin egongo naiz * Harik eta guztiek berarekin hitz egin zuten arte, ez zen iritzia ematera ausartu	* Hasta que
Noizko -n garaiko..., -n eguneko..., - neko(a)	* Argazki hauek kuban egon ginen garaikoak dira * Apunte horiek ikasle zinetenekoak izango dira	* De cuando

Iturria: Santurtziko aek euskaltegia

ESALDIAK BERRIDATZI

1. Jolasten ari zinen eta min hartu duzu

.....-ela.....

2. Poltsa irekitzera nindoala, konturatu nintzen giltzak etxean utzi nituela

.....-koan.....

3. Ateari danbateko bat eman zionean, kristala puskatu zen

.....-koan.....

4. Okindegi horretan ogiak egin eta bost minutura saltzen dituzte

.....ahala.....

5. Gaztea zaren bitartean aprobeztatu beharko duzu; gero, nahikoa lan!

.....-eino.....

6. Nahi izanez gero, ni erosketak egitera joango naiz. Bitartean zu etxea garbitzen has zaitezke

.....-n bitartean.....

7. Tolosatik haranzkoan, basurde bat atera zitzaigun bidera. Gero, mendian, ez genuen aztarrenik ikusi

.....ela.....

8. Idazlanak egitea ahazten zait eta gero irakasleak errieta egiten dit

.....-nean.....

Zuzenketa orria:

1. Jolasten ari zinen eta min hartu duzu

Jolasten ari zinela min hartu duzu

2. Poltsa irekitzera nindoala, konturatu nintzen giltzak etxean utzi nituela

Poltsa irekitzerakoan konturatu nintzen giltzak etxean utzi nituela

3. Ateari danbateko bat eman zionean, kristala puskatu zen

Ateari danbateko bat emandakoan kristala hautsi zen

4. Okindegi horretan ogiak egin eta bost minutura saltzen dituzte

Okindegi horretan ogiak egin ahala saltzen dituzte

5. Gaztea zaren bitartean aprobetxatu beharko duzu; gero, nahikoa lan!

Gaztea zareino aprobetxatu beharko duzu, gero nahikoa lan!

6. Nahi izanez gero, ni erosketak egitera joango naiz. Bitartean zu etxea garbitzen has zaitezke

Nahi izanez gero, ni erosketak egitera noan bitartean zu etxea garbitzen has zaitezke

7. Tolosatik haranzkoan, basurde bat atera zitzaigun bidera. Gero, mendian, ez genuen

aztarrenik ikusi

Tolosatik harantz gindoazela, basurde bat atera zitzaigun bidera, gero mendian ez genuen aztarrenik ikusi

8. Idazlanak egitea ahazten zait eta gero irakasleak errieta egiten dit

Idazlanak egitea ahazten zaidanean irakasleak errieta egiten dit